

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2023ko ekaina

Aurkibidea

1. BPGaren hazkundera EAEn
2. Lan merkatua
3. Inflazioa
4. Kanpo merkataritza
5. PMI konposatua
6. Europar Batzordeko aurreikuspenak

Eranskina

1. EAEko ekonomia %2,3 hazi zen aurtengo lehen hiruhilekoan.

Hiru sektore nagusiek aurreko hiruhilekoetakoak baino hazkunde txikiagoak jaso zituzten.

2. Enpleguaren sorrera moteldu egin da Euskadin.

Lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopurua milioitik gorakoa da.

3. Prezioak %4,2ra goratu dira apirilean.

Hala ere, azpiko inflazioa sei hamarren jaitzi zen, %6,8ra arte.

4. EAEko esportazioak maila gorenera hurbiltzen ari dira.

Atzerrian saldutako ondasunen balioa 9.000 milioi eurora hurbildu zen lehen hiruhilekoan.

5. Europako enpresen jarduerak gora egiten jarraitu zuen maiatzean.

Euroaren eremuko PMIa 53,3an kokatu zen hilabete horretan, aurreko datua baino pixka bat beherago.

6. Europako ekonomia hazkunde sendo baten bidera itzuli da

Europako Batzordeak aurreikusi duenez, Europar Batasuna %1,0 haziko da aurten eta %1,7 datorren urtean.




EAE-KO EKONOMIAREN HAZKUNDEA

EAEko ekonomia %2,3 hazi zen aurtengo lehen hiruhilekoan

BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa

2023ko BPGA
1. HIRUHILEKOA
%2,3




Eustaten arabera, 2023ko lehen hiruhilekoan eta urte arteko tasan EAEko ekonomia %2,3 hazi zen, hots, aurrerapenean argitaratu zuten zifra baino hamarren bat gehiago. Eskariari dagokionez, kanpo merkataritzaren une ona nabarmentzen da, esportazio errealak %6,3 hazi baitira, eta inportazioak, berriz, %5,4. Bi magnitude horien ondorioz, kanpo saldoak ekarpen positibo handia egin dio BPGaren hazkunderari.

Bestalde, barne eskaria moteldu egin zen berriro, eta %1,8 egin zuen gora, aurreko hiruhilekoan baino puntu erdi gutxiago. Ziurgabetasunak, konfiantza txikiagoak, inflazioaren presioek, beharrezko bilakaera izan arren, eta moneta politikaren gogortzeak murriztu egin zuten kontsumo pribatuaren eta inbertsioaren dinamismoa, eta horien erritmo galera ezin izan zen gastu publiko handiagoarekin konpentsatu.


KONTSUMO PRIBATUA

Urte arteko aldakuntza tasa




KONTSUMO PUBLIKOA

Urte arteko aldakuntza tasa




INBERTSIOA

Urte arteko aldakuntza tasa




ESPORTAZIOAK

Urte arteko aldakuntza tasa



ZERBITZUEN BALIO ERANTSIA


Urte arteko aldakuntza tasa



Eskaintzaren ikuspegitik, EAeko ekonomiaren hiru sektore nagusiek erritmoa galdu zuten berriro, nahiz eta guztiak hazkunde positiboak izan zituzten. Zehatzago esanda, zerbitzuen balio erantsia urte arteko %2,9 izan zen, eta industriarena, berriz, %1,1. Bi kasuetan, azken hiruhilekoetan izan duten bilakaera geldoena izan da. Azkenik, eraikuntzak hobekuntza zantzuak erakutsi bazituen ere aurreko sei hilabeteetan, nabarmen moteldu zen aurtengo lehen laurdenean, %0,9ko hazkunde tasarekin.


INDUSTRIAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa



ERAIKUNTZAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.



Enplegu sorrera moteldu egin da Euskadin


ENPLEGU GUZTIA

Urte arteko aldakuntza tasa

URTE ARTEKO ENPLEGUA

1. HIRUHILEKOA

%1,5



Eustatek landutako hiruhilekoko kontu ekonomikoen arabera, lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtutako enplegua %0,3 handitu zen aurtengo lehen hiruhilekoan aurreko hiruhilekoaren aldean, eta %1,5, berriz, aurreko urteko aldi beraren aldean. Zehazkiago adierazita, lanpostu kopurua 1.005.000tik gorakoa izan zen,

2008ko bigarren hiruhilekoan jasotako kopurura hurbilduz, 1.006.541 landun lortu baitziren orduan. Enplegu sorrera hori hiru sektore nagusietan oinarritu zen, eta zerbitzuen sektoreak izan zuen beste behin ere gorakada handiena (%1,8).


ENPLEGU GUZTIA

Hiruhileko arteko aldakuntza tasa

HIRUHILEKO ARTEKO ENPLEGUA


1. HIRUHILEKOA

%0,3



ENPLEGUA LEHEN ARLOAN


Urte arteko aldakuntza tasa



Lehen sektorea izan zen enplegua kanporatu zuen sektore bakarra (-%1,4), eta hori, 2022ko hirugarren hiruhilekoan izan ezik, etengabe errepikatu da azken aldietan. Aitzitik, gainerako sektoreek neurri handiagoan edo txikiagoan sortu zuten enplegua. Horrela, eraikuntzaren sektorean okupazioa %1,2 hazi zen, baina balio absolutuetan, krisiaren aurreko mailen oso az-

ENPLEGUA ERAIKUNTZAN


Urte arteko aldakuntza tasa



pitik daude oraindik. Beste aldetik, industria-ren sektoreak hazkunde neurritsuagoa izan zuen (%0,8), baina horrek ez zuen eragotzi landunen kopurua 200.000 pertsonatik gora finkatzea. Azkenik, zerbitzuen sektoreak, nahiz eta beheranzko joera erakutsi, azken hiruhilekoetan bezala, izan zituen hazkunderik handienak (%1,8).

ENPLEGUA INDUSTRIAN


Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.

ENPLEGUA ZERBITZUETAN

Urte arteko aldakuntza tasa




INFLAZIOA

Prezioak %4,2 goratu dira apirilean

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



EAEko inflazioa, apirilean, 0,9 puntu igo da martxoarekin alderatuta, urte arteko tasa %4,2raino igoz, eta, beraz, azken bi hilabeteetako beheranzko joera bertan behera utzi du. Igoera horren arrazoia, batez ere, oinarri efektu batean bilatu behar da. Izan ere, Espainiako gobernuak iazko apirilean neurri jakin batzuk onartu zituen inflazioa txikiagoa izan zedin, baina gaur egun ez daude indarrean, inflazioaren igoera eraginez.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2021	2022	2023ko apirila	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	3,1	8,1	4,2	4,2
Azpiko inflazioa (%83,7)	1,0	5,1	6,8	5,3
- Elikagai landuak (%15,6)	1,4	10,2	15,3	2,3
- Industria ondasunak (%20,5)	1,0	4,7	5,1	1,0
- Zerbitzuak (%47,6)	0,7	3,3	4,3	2,0
Hondar inflazioa (%16,3)	12,1	20,0	-6,1	-1,1
- Landu gabeko janariak (%7,0)	2,6	10,8	6,4	0,4
- Energia (%9,3)	21,3	28,2	-16,0	-1,5


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa




HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



BRENT PETROLIO UPELAREN PREZIOA


Hileko batez bestekoa. Dolarrak upeleko



Hain zuzen ere, inflazio orokorraren gorakada hori, neurri handi batean aurreikusita baitzegoen, iazko apirilean krisiaren aurkako lehen neurriak abian jarri zirelako izan zen, hala nola erre-gai litro bakoitzeko 20 zentimoko deskontua. Igoeran izan duten eraginagatik nabarmendu diren taldeen artean etxebizitza eta garraioa aipatu behar dira, argindarraren eta erregaien prezioen bilakaerak eraginda, hurrenez hurren. Lehenengoak balio negatiboak eutsi bazien ere

TTF GAS NATURALAREN PREZIOA

Hileko batez bestekoa. Euro MWh-ko



(-11,7), 5,3 puntu egin zuen gora, eta garraioak, berriz, -4,2tik %1,3ra igaro da. Kontrako noranzkoan, elikagaien eta alkoholik gabeko edarien taldea nabarmendu behar da, ia hiru puntu jaitsi baita haien aldakuntza tasa (aurreko %15,5etik orain %12,6ra), elikagaien prezioek igoera moteldu dutelako. Elikagaien prezioen moteltze horri esker, azpiko inflazioa sei hamarren murriztu da eta orain %6,8an dago kokatuta.

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2023ko apirila

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	4,2	4,1	7,0
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	12,6	12,9	15,0
Edari alkoholdunak eta tabakoa	7,9	8,4	7,6
Jantziak eta oinetakoak	0,9	2,2	4,1
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-11,7	-10,8	4,8
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	7,7	6,3	8,1
Osasuna	2,5	1,6	2,8
Garraioa	1,3	0,6	3,1
Komunikazioak	2,5	2,5	0,3
Aisia eta kultura	4,0	4,0	5,6
Hezkuntza	2,0	1,6	4,5
Jatetxeak eta hotelak	7,1	7,6	8,8
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	6,2	5,1	5,3

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.



EAEko esportazioak maila gorenera hurbiltzen ari dira


ESPORTAZIOAK GUZTIRA

Miloi euro

1. HIRUHILEKOKO ESPORTAZIOAK HAZKUNDE TASA

%21,2


Nazioarteko testuinguruan ziurgabetasuna nagusi den arren, EAEko ekonomiak kanpoko sektoretik bultzada handia jasotzen jarraitu zuen. Eustatek argitaratutako datuen arabera, aurtengo lehen hiruhilekoari dagozkion atzerrirako esportazioak 9.000 milioi eurora hurbildu ziren, duela urtebete lortutako maximo historikotik gertu. Izan ere, EAEko salmentek gora egin dute urteak aurrera egin ahala, martxoan 3.312 milioi eurora igo arte, hileko maximo berri bat.



Lehen hiruhileko honetan hobekien portatu diren sektoreak esanguratsuenak dira, EAEko ekonomiaren bizkarrezurra osatzen dutenak. Ekipamenduko ondasunak %32,5 hazi ziren, eta metal arruntak eta manufakturak %4,3. Aurreko hiruhilekoetan erregistratutako egiturarekiko alde nagusia zera izan zen, esportazio energetikoak, ia bi urte hazkunde leherkorrekin igaro ondoren, %10,6 murriztu zirela. Energiaren prezioaren jaitsierak azaltzen du, hein handi batean, beherakada hori.


ESPORTAZIO EZ-ENERGETIKOAK.

Miloi euro



ENERGIAKO ESPORTAZIOAK.

Miloi euro



ESPORTAZIOAK HELMUGAREN ARABERA. 2023KO 1. HIRUHILEKOA

Herraldea	%
Alemania	%15,7
Frantzia	%15,3
AEB	%8,4
Erresuma Batua	%6,7
Italia	%5,7
Herbehereak	%5,1
Belgika	%4,8
Portugal	%4,0
Polonia	%2,5

Herraldeka, Alemaniara (%19,2) eta Frantziara (%15,2) esportatutako produktuen hazkundera nabarmendu zen, bietan superabit saldo handiekin. Europar Batasunetik kanpo, Erresuma Batua merkatu garrantzitsu bihurtu zen, non salmentak hazi egin ziren adar guztietan, paperarekin lotutakoak izan ezik. Ukrainiako gerraren ondorioz Errusiara egindako esportazioek izandako beherakada nabarmendu zen, %50,2 jaitsi baitziren, esportatutako guztizkoaren %0,3 besterik ez izan arren. Aitzitik, beste merkatu batzuek ere

ESPORTAZIOEN BANAKETA. 2023KO 1. HIRUHILEKOA


Arantzel taldea	%
Ekipamendu ondasunak	%45,1
Garraio materiala	%28,0
Makinak eta aparatuak	%17,1
Ohiko metalak eta manuf.	%22,0
Nekazaritzako produktuak	%7,6
Plastikoa eta kautxua	%7,2
Produktu mineral, energetikoak	%5,6
Produktu kimikoak	%3,5
Papera	%2,5

irabazi zuten, hala nola Estatu Batuetakoak (gutzizkoaren %8,4), %62,6 igo baitzen, eta, beraz, hirugarren postuan dago.

Inportazioen guztizkoak ere, eurotan neurtuta, hazkunde handia izan zuten eta %11,1 gehitu ziren. Horren guztiaren ondorioz, guztizko saldoak 1.828 milioi euroko superabita izan zuen, orain arte erregistratutako bigarren handiena, eta, horri esker, %125,7ko estaldura tasari eutsi zitzaion.

INPORTAZIOAK GUZTIRA


Milioi euro



Iturria: Eustat

SALDOA GUZTIRA

Milioi euro





PMI KONPOSATUA


Europako enpresen jarduerak gora egiten jarraitu zuen maiatzean

Euroaren eremuko PMIa 53,3an kokatu zen maiatzean, aurreko datua baino ia puntu bat behe-rago. Hori horrela izanda, indizea hedapen eremuan dago, bosgarren hilabetez jarraian. Alde nabarmena dago sektore nagusi bakoitzaren portaeran; izan ere, manufaktura (46,3) azkar murrizten ari dira beren jarduerak, baina, aldi berean, zerbitzuek (55,9) dinamismo handiko profila erakusten dute.


Eskaera berrien sarrerak garrantzitsua izaten jarraitzen du zerbitzuetan, baina manufaktura-gero eta erritmo biziagoan apaldu da. Eskariaren jaitsiera horren ondorioz, sargaien prezio-igoerak moteldu egiten dira, batez ere manufaktura-industrian. Bestalde, datozen hamabi hilabeteekiko itxaropenek okerrera egin dute, nahiz eta zerbitzuek eta industriak enplegua sortzen jarraitzen duten.

PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA


2023KO MAIATZA
53,3




MANUFAKTUREN PMI. EUROGUNEA




ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA



PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




Herrialdeka egindako analisiaren arabera, Alemaniak oraindik ere indar handiko posizioa du (54,3), hamalau hilabeteen emaitzarik onena lortu baitu, manufacturen industria indartsua uzteko eremuan dagoen arren. Frantziak, bestalde, geldialditik gertuago dagoen profila eskaintzen du (51,4), pixka bat hobetzen ari den baina gora egiten ez duen industria baten erruz.

Eurogunetik kanpo, AEBek (54,5) eta Japoniak (54,9) aurreko emaitzak hobetu dituzte, eta hazkunde handiko egoeran daude. Erresuma Batuko ekonomia ere erritmo onean ari da hazten, adierazle aurreratu horren arabera.


PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



PMI KONPOSATUA. AEB



PMI KONPOSATUA. JAPONIA




Iturria: Markit

EUROPAKO BATZORDEAREN AURREIKUSPENAK

Europako ekonomia hazkunde sendo baten bidera itzuli da

EUROPAR BATASUNAREN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




Energiaren arloan egoera zaila bizi den arren eta diru politika gero eta zorrotzagoa izan arren, Europako ekonomiak aurtengo lehen hiruhilekoan aurreikusitakoa baino susperraldi sendoagoa lortu duenez, Europako Batzordeak aurreikuspenak hobetu ditu. Hala, 2023an EB %1,0 eta 2024an %1,7 haztea espero da, eta eurogunea, berriz, %1,1 eta %1,6 haztea, hurrenez hurren. 2023an, esportazio garbiak izango dira ekonomiaren dinamismoari gehien lagunduko diotenak, eta 2024an kontsumo pribatuaren gorakada neurritsua gehituko zaie horiei.

BPG. EUROPAR BATZORDEAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2022	2023	2024	2023	2024
Europar Batasuna	3,5	1,0	1,7	0,2	0,1
Eurogunea	3,5	1,1	1,6	0,2	0,1
Alemania	1,8	0,2	1,4	0,0	0,1
Belgika	3,2	1,2	1,4	0,4	-0,2
Espainia	5,5	1,9	2,0	0,5	0,0
Frantzia	2,6	0,7	1,4	0,1	0,0
Italia	3,7	1,2	1,1	0,4	0,1
Herbehereak	4,5	1,8	1,2	0,9	-0,1
Portugal	6,7	2,4	1,8	1,4	0,0
Irlanda	12,0	5,5	5,0	0,6	0,9
Grezia	5,9	2,4	1,9	1,2	-0,3
Austria	5,0	0,4	1,6	-0,1	0,2


ALEMANIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




FRANTZIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Inflazioaren hazkunde tasak beheranzko bidean jarraitzen du, energiaren prezioen merkatzearen ondorioz. Azpiko inflazioak goia jo duela ematen du, baina oraindik nolabaiteko ziurgabetasuna dago maila altuetan irauteari eta gainerako prezioetara transmititzeari dagokionez. Espero izatekoa da, beraz, moneta agintaritzak diru politika gogortzen jarraitzea. Interes tasak askoz gehiago igotzea espero ez den arren, interes tasa horiek denbora gehiagoz altu mantentzeko aukera aztertzen hasi da.

KPI. EUROPAR BATZORDEAREN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2022	2023	2024	2023	2024
Europar Batasuna	9,2	6,7	3,1	0,3	0,3
Eurogunea	8,4	5,8	2,8	0,2	0,3
Alemania	8,7	6,8	2,7	0,5	0,3
Belgika	10,3	4,3	3,5	0,0	0,8
Espania	8,3	4,0	2,7	-0,4	0,4
Frantzia	5,9	5,5	2,5	0,3	0,0
Italia	8,7	6,1	2,9	0,0	0,3
Herbehereak	11,6	4,9	3,3	0,4	0,6
Portugal	8,1	5,1	2,7	-0,3	0,1
Irlanda	8,1	4,6	2,6	0,2	0,5
Grezia	9,3	4,2	2,4	-0,3	0,0
Austria	8,6	7,1	3,8	0,5	0,2

Iturria: Europar Batzordea.

ESTATISTIKA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT. Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022	2022				2023
			I	II	III	IV	I
BPG	5,9	4,4	5,8	5,0	3,8	2,9	2,3
Barneko azken kontsumoa	5,2	2,2	2,9	1,8	2,0	2,1	1,9
Familien kontsumoa	5,6	3,0	3,5	3,2	2,7	2,3	1,7
Administrazioaren kontsumoa	3,9	-0,4	0,7	-2,9	-0,4	1,2	2,4
Kapital eraketa gordina	6,0	4,4	4,7	4,8	5,1	2,9	1,6
Barne eskaria	5,4	2,7	3,3	2,5	2,7	2,3	1,8
Esportazioak	12,7	10,4	13,7	13,9	9,4	5,0	6,3
Inportazioak	11,6	7,6	9,4	9,6	7,6	4,0	5,4
Lehen arloa	21,9	0,8	-1,7	-3,4	7,8	0,7	7,4
Industria eta energia	6,1	4,6	6,5	5,9	3,6	2,5	1,1
Eraikuntza	4,5	2,0	1,9	1,3	2,3	2,4	0,9
Zerbitzuak	5,8	4,7	6,2	5,4	4,2	3,3	2,9
Balio erantsi gordina	5,9	4,5	6,0	5,2	4,0	3,0	2,4
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	6,1	2,9	3,9	2,9	2,6	2,1	1,6
Enplegua	5,9	3,1	4,9	3,7	2,0	1,9	1,5

MARTXOKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA . Urte arteko aldakuntza tasa

	2023				2023	2024
	I	II	III	IV		
BPG	2,1	0,9	1,5	1,6	1,5	2,1
Barneko azken kontsumoa	1,7	1,2	1,3	1,5	1,4	2,1
Familien kontsumoa	1,6	0,1	1,0	1,6	1,0	2,3
Administrazioaren kontsumoa	2,3	5,0	2,4	1,2	2,7	1,3
Kapital eraketa gordina	1,6	2,0	3,0	2,9	2,4	4,1
Barne eskariaren ekarpena	1,8	1,3	2,4	1,8	1,8	2,5
Kanpo eskariaren ekarpena	0,4	-0,3	-0,9	-0,3	-0,3	-0,4
Lehen arloa	4,0	-4,8	-3,2	5,1	0,0	1,2
Industria	1,0	0,2	2,8	0,7	1,1	1,8
Eraikuntza	1,4	1,0	0,4	-0,2	0,6	1,6
Zerbitzuak	2,6	1,4	1,4	1,9	1,8	2,3
Balio erantsi gordina	2,2	1,0	1,6	1,5	1,6	2,1
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,0	0,7	0,9	1,1	1,2	1,8
Lanaldi osoko lanpostuak	1,5	0,7	0,7	0,6	0,9	0,9
Lanadunak (BJA)	1,1	0,2	0,5	0,1	0,5	0,4

EAEKO AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK. Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024		2023	2024
Hispalink (BPGaren aldakuntza)	1,7	2,5	Laboral kutxa	1,3	—
Confebask	1,5	—	BBVA	1,3	2,9
Funcas	1,4	—	Ceprede	0,9	2,3

ESTADÍSTICA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE

Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022	2022				2023
			I	II	III	IV	
BPG	5,5	5,5	6,5	7,7	4,8	2,9	3,8
Kontsumo pribatua	6,0	4,5	4,8	5,2	5,0	2,9	1,5
Kontsumo publikoa	2,9	-0,7	-1,1	-2,6	-1,4	2,5	1,3
Kapital finkoaren eraketa gordina	0,9	4,6	3,8	6,0	6,3	2,4	0,8
- Aktibo finko materialak	0,1	4,4	3,1	5,8	6,2	2,7	1,0
- Eraikuntzan	-3,7	4,7	0,6	6,5	6,9	4,7	5,0
- Ekipamendu ondasunetan	6,3	4,0	7,0	4,6	5,1	-0,7	-5,5
- Jabetza intelektualaren produktuak	4,7	5,5	7,1	6,8	6,7	1,5	0,1
Nazio eskaria (ekarpena)	5,2	3,1	4,7	3,8	2,9	1,0	1,3
Esportazioak	14,4	14,4	17,1	20,2	14,2	7,1	10,2
Inportazioak	13,9	7,9	12,5	8,5	8,9	2,2	4,0

BPGAREN AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK

Urte arteko aldakuntza tasa

	2023	2024		2023	2024
Repsol	2,2	1,9	UniCredit	1,6	1,4
Oxford Economics	2,2	1,3	S&P Global Market Intel	1,5	1,5
Moody's Analytics	2,1	1,5	FUNCAS	1,5	1,4
Goldman Sachs	1,9	1,7	Barclays	1,5	0,9
CEOE	1,9	1,4	Inst. Estud. Económicos	1,5	2,2
AFI	1,8	1,5	Citigroup	1,5	1,2
Econ Intelligence Unit	1,8	1,4	La Caixa	1,3	1,9
Grupo Santander	1,8	1,1	Batez bestekoa	1,6	1,6
CEPREDE	1,7	2,5	Gobernua (2023-04)	2,1	2,4
UBS	1,7	2,1	Espainiako Bankua (2023-03)	1,6	2,3
BBVA	1,6	2,6	Europar Batzordea (2023-05)	1,9	2,0
Societe Generale	1,6	1,2	NDF (2023-04)	1,5	2,0
HSBC	1,6	1,1	ELGA (2023-03)	1,7	1,7

Iturria: Consensus Forecast.

ESTADÍSTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2021	2022	2022				2023
			I	II	III	IV	I
AEB	5,9	2,1	3,7	1,8	1,9	0,9	1,6
Txina	8,1	3,0	4,8	0,4	3,9	2,9	4,5
Japonia	2,1	1,0	0,7	1,5	1,6	0,4	1,3
Kanada	5,0	3,4	3,2	4,7	3,8	2,1	2,2
Europar Batasuna	5,4	3,5	5,7	4,4	2,6	1,7	1,2
Eurogunea	5,3	3,5	5,5	4,4	2,5	1,8	1,3
Alemania	2,6	1,8	3,8	1,7	1,4	0,8	-0,5
Frantzia	6,8	2,6	4,5	4,0	1,1	0,6	0,9
Erresuma Batua	7,6	4,1	10,6	3,8	2,0	0,6	0,2
Italia	7,0	3,7	6,5	5,0	2,5	1,5	1,9
Herbehereak	4,9	4,5	6,2	5,2	3,3	3,4	2,1

Iturria: Eurostat eta ELGE.

CONSENSUS FORECAST. 2023KO MAIATZA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2023	2024	2023	2024	2023	2024
AEB	1,1	0,6	4,2	2,6	3,8	4,6
Japonia	1,0	1,1	2,6	1,4	2,5	2,4
Kanada	0,9	1,2	3,6	2,2	5,5	6,0
Europar Batasuna	0,7	1,4	6,3	2,9	—	—
Eurogunea	0,7	0,9	5,5	2,4	6,8	6,9
Alemania	0,1	1,1	6,2	2,7	5,5	5,5
Frantzia	0,6	0,9	5,4	2,6	7,4	7,5
Erresuma Batua	-0,1	0,8	6,7	2,8	4,1	4,5
Italia	0,8	0,9	6,1	2,4	8,1	8,0
Espania	1,6	1,6	4,1	2,8	—	—
Herbehereak	1,2	1,0	4,2	2,8	—	—

Iturria: Consensus Forecast.